


Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 jaitsi dira 2024ko urrian aurreko hilaren aldean

2023ko urriarekin alderatuta, industriako prezioek % 6,3ko beherakada izan dute

2024ko urrian Euskal AEko industria-prezioak % 0,5 jaitsi ziren aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urriko urte arteko tasak % 6,3ko atzerakada izan du; horrek azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen du.

Azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2024ko urrian, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (-% 3,1) eta *Botiken fabrikazioa* (-% 2,4) sektoreek izan dituztela jaitsierarik handienak prezioetan, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, hileko prezioetan igoerarik handiena izan duten sektoreak hauek izan dira: *Kokeak eta petrolioa fintzea* (% 2,7) eta *Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa* (% 0,9).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, 2024ko irailaren aldean, *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,8 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 0,9 jaitsi direlako, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak konstante mantendu direlako. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,5 jaitsi dira eta *Ekipo-ondasunenak* eta *Energiarenak* % 0,4.

Urte arteko terminoetan, 2024ko urria 2023ko urriarekin alderatuta, prezioen jaitsierarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 29,6) eta *Kokeak eta petrolioaren fintzea* (% 21,4) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko datuetan igoera handiena izan duten prezioak *Erauzketa-industriak* adarrean daude, % 6,4rekin. *Ura* eta *Altzariak, beste manufaktura-industria batzuk, konponketa eta instalazioa*, prezioek % 3,2 egin dute gora 2023ko urriaren aldean.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	122,8	-0,5	-6,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	135,1	0,0	6,4
Manufaktura-industria	127,7	-0,2	-2,5
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,6	-0,8	-0,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	113,2	-0,2	-2,4
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	143,5	-0,3	2,5
Kokeak eta petrolioaren fintzen	120,5	2,7	-21,4
Industria kimikoa	145,5	-0,8	0,1
Botiken fabrikazioa	127,0	-2,4	-2,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,0	0,0	-1,5
Metalurgia eta produktu metalikoak	139,1	-0,6	-0,3
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	122,9	0,9	2,1
Material eta ekipoen fabrikazioa	120,2	0,1	3,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	116,6	0,0	1,3
Garraioko materialen fabrikazioa	116,1	-1,1	2,5
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	121,3	-0,6	3,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	92,5	-3,1	-29,6
Ura	137,3	0,8	3,2
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,4	-0,8	-0,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	122,1	0,0	3,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	130,6	-0,9	-0,7
Ekipoen-ondasunak	120,8	-0,4	2,2
Bitarteko ondasunak	134,3	-0,5	0,0
Energia	102,1	-0,4	-28,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Azaroaren 21a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Xede ekonomikoaren arabera ondaren talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (% 28,2ko jaitsiera) eta *Kontsumo-ondasunetan* (% 0,2ko jaitsiera). Prezioak % 0,7 jaitsi dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorretan* eta % 3,2 igo *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*. *Bitarteko ondaren* prezioak aurreko urteko hilabete berean mantendu ziren. Azkenik, *Ekipo-ondaren* prezioek % 2,2ko urte arteko hazkundera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren **% 93,10eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62